



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 28a

125. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00008. Foru Legea, zeinaren bidez SODENA-Sociedad de Desarrollo de Navarra SLri baime-na ematen baitzaio Dynamobel SArI abala eman diezaion. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00145. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea aldatzea bultzatuz, eta egin beharreko lege- nahiz arau-aldaketak bultzatuz bermatze aldera langileek administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetako gobernu- eta administrazio-organoetan ere parte hartzen dutela. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (4. or.).

—11-25/MOC-00149. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira etxebizitzaren arloan beherapen fiskala aplikatzeko plan bat taxutu dezaten. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (5. or.).

—11-25/MOC-00151. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan ez dela arreta-ordutegia murriztuko arreta jarraituko eta larrialdiko arretako gune (AJG) bakar batean ere, egun dauden gune guztien funtzionamenduari eutsiko zaiola eta Erriberriko gunearen ordutegia berreskuratuko dela. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (8. or.).

—11-25/MOC-00152. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua argi eta garbi azaltzen baita emakumeen eskubideen eta askatasunen alde. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (9. or.).

—11-25/MOC-00153. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru-komunitateko langile autonomoen balioa eta ekarpen ekonomikoa eta soziala aintzatetsi ditzan. Nafarroako Alderdi Popu-larra talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).

—11-25/MOC-00108. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita muturreko bero-garaietan Nafarroako osasun-zentro guztietako klimatizatu gabeko guneetan jarduteko protokolo bat taxutu eta onetsi dezan. Osasun Batzordeak onetsi du (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 110/2025 Ebazpena, 2025eko urriaren 23koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00298 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen hurrengo bilkuran sartzen baita, ahoz erantzuteko (12. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00008. Foru Legea, zeinaren bidez SODENA-Sociedad de Desarrollo de Navarra SLri baimena ematen baitzaio Dynamobel SAri abala eman diezaion

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 23an egindako bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: SODENA-Sociedad de Desarrollo de Navarra SLri baimena ematen zaio Dynamobel SAri abala eman diezaion.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, zeinaren bidez
SODENA-Sociedad de Desarrollo de
Navarra SLri baimena ematen
baitzaio Dynamobel SAri abala eman
diezaion**

ATARIKOA

Sociedad de Desarrollo de Navarra SL sozietate publikoak Nafarroako Parlamentuaren berariazko baimena eskatu du bi milioi euroko abala emateko Dynamobel SAri, gainerako bazkideek beste milioi bat euroko ekarpena, partaidetzako maileguaren eran, egiteko baldintzaren mende.

Eskaera horrek honako hauek ditu oinarri: 1/1984 Foru Legea, urtarrilaren 2koa, Nafarroaren

Garapen Sozietatea (SODENA) sortzeari buruzkoa; 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa; 19/2024 Foru Legea, abenduaren 26koa, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, hark baimendutako gehieneko zenbatekoaren barruan baitago; eta Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2025eko apirilaren 16koa, SODENA-Sociedad de Desarrollo de Navarra SL sozietate publikoari baimena ematen diona 2025eko ekitaldian abalak emateko, oro har, 20.000.000 euroko mugara arte.

Arau horietan ezarritakoaren esparruan, eta kon-tuan hartuta eragiketaren garrantzi berezia, oso handia baita enpresa horrek Azkoien inguruan daukan eragin sozioekonomikoa, egokia da berariazko baimena ematea SODENari Dynamobel SA finantza dezan.

Artikulu bakarra. Dynamobel SA finantzatzeko baimena.

Baimena ematen zaio Sociedad de Desarrollo de Navarra SL sozietate publikoari bi milioi euroko abala emateko Dynamobel SAri, gainerako bazkideek beste milioi bat euroko ekarpena, partaidetzako maileguaren eran, egiteko baldintzaren mende.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-25/MOC-00145. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru
Legea aldatzea bultza dezan, eta egin beharreko lege- nahiz arau-aldake-
tak bultza ditzan bermatze aldera langileek administrazioari lotutako edo
haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetako gobernu- eta adminis-
trazio-organoetan ere parte hartzen dutela**

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea aldatzea bultza dezan, eta egin beharreko lege- nahiz arau-aldaketak bultza ditzan bermatze aldera langileek administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetako gobernu- eta administrazio-organoetan ere parte hartzen dutela.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Solak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Langileek erakunde publikoetako zuzendaritza- eta kudeaketa-organoetan parte hartzea ez da justizia demokratikoaren kontua soilik, sektore publikoaren kudeaketan gardentasuna, efizientzia eta kontu-ematea hobetzeko tresna eraginkorra ere bai baita. Nafarroak administrazioarekin lotutako edo haren menpeko zuzenbide publiko eta pribatuko entitateen sare zabala eta askotarikoa du, arlo estrategikoetan funtsezko eginkizunak betetzen dituztenak, hala nola osasungintzan, hezkuntzan, etxebizitzan, berrikuntzan, azpiegituretan edo gizarte-zerbitzuetan. Hala ere, egungo foru-araudiak ez du behar bezala bermatzen plantillek zuzenean parte hartzea entitate horien gobernu- eta administrazio-organoetan.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeak 111. artikuluan arautzen du sozietate publikoen gobernu- eta administrazio-organoen osaera. Ordezkaritza instituzionalerako irizpideak eta kontrol publikorako mekanismoak ezartzen baditu ere, ez du aurreikusten langileen ordezkariek egotea, ez hitz egiteko, ez bozkatzeko eskubidearekin. Gabezia hori ez dator bat Espainiako esparru konstituzionala inspiratzen duten parte-hartzearen eta demokratizazioaren printzipioekin —Konstituzioaren 129.2 artikulua, botere publikoei agintzen diena eraginkortasunez susta ditzaten interesdunek enpresan parte hartzeko dituzten modu desberdinak—, ez eta gobernu onaren eta gizarte-erantzukizunaren arloan Europak emandako gomendioekin ere.

Esperientziak erakusten duenez, langileek administrazio-kontseiluetan eta gobernu-organoetan parte hartzea lagungarria da entitatearen helburue-

kin hobeto identifikatzeko, kudeaketa egonkorragoa eta konprometituagoa izateko eta arriskuak eta disfuntzioak lehenago detektatzeko. Gainera, erakunde publikoekiko konfiantza indartzen du, eta erabaki estrategikoak ikuspegi integralago batetik hartzea ahalbidetzen du, kontuan hartuko dituen kudeaketaren ikuspegia eta politika publikoak egunerokotasunean egikaritzen dituztenen ikuspegia.

Gauzak horrela, Nafarroak gobernantza-eredu parte-hartzaileago baterantz jo beharra du, sektore publiko instituzionaleko maila guztietako langileen ahotsa aitortuko duen baterantz. Horretarako, Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legea aldatu beharra dago, halako moduan non 111. artikuluan jasoko baita langileen ordezkariak ere egonen direla sozietate publikoen gobernu- eta administrazio-organotan. Koherentziaz, printzipio bera hedatu behar da Nafarroako Gobernuari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetara eta fundazio publikoetara, langileek egiaz parte-hartzea bermatuta gera dadin foru-sektore publiko osoan, horren eite juridikoa zein ere den.

Kudeaketa publikoaren demokratizazioa ezin da mugatu erakundeen artean kontuak ematera; zerbitzu publikoak beren lanarekin sostengatzen dituztenek zuzenean parte hartzea ere ireki behar da. Urrats horrek indartu egingen ditu kalitate demokratikoa, kudeaketako erantzunkidetasuna eta Nafarroako zerbitzu publikoa definitzen duten interes orokorreko helburuekiko konpromiso kolektiboa.

Erabaki-proposamena

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 111. artikulua, sozietate publikoen gobernu- eta administrazio-organoei buruzkoa, aldatzea bultzatzen dezan, langileek horietan egiaz parte hartzen dutela bermatzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du egin beharreko lege-nahiz arau-aldaketak bultzatzen dituzan bermatze aldera langileek administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetako gobernu- eta administrazio-organotan parte hartzen dutela, bai eta fundazio publikoetan ere.

Iruñean, 2025eko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/MOC-00149. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira etxebizitzaren arloan beherapen fiskala aplikatzeko plan bat taxutu dezaten

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira etxebizitzaren arloan beherapen fiskala aplikatzeko plan bat taxutu dezaten.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Espanian eta Nafarroan aurrekaririk gabeko etxebizitza-larrialdi batean gaude: etxeen eskaintzak behea jo du, eta Espainiako eskaria prekarizatu egin da, lehia desleiala izateraino. Lan-aukerak metatzen diren Espainiako hiriak etsaitasunezko eremu bihurtu dira, batez ere espainiar gazteentzat, eta immigrazio masiboak gure udalerriak gainezkatu ditu, bizi-ezinezkoak edo iritsezinak bihurtzeraino.

2020az geroztik, alokairu iraunkorreko etxebizitzaren eskaintza erdia baino gehiago jaitsi da Espainian (% 56), eta prezioak, berriz, % 30 igo dira. 2011n, 35 urtetik beherakoen % 70 beren etxeen jabeak ziren; gaur egun, % 31 baino ez. 90eko hamarkadan, etxe bat erostea urteko soldata gordinaren 3 urte eta erdi zen; gaur egun, Madrilen, Bartzelonan, Malagan edo Palman, 10 urteko soldatetik gorakoa da. Eta familien % 40k baino gehiagok diru-sarreraren % 40 baino gehiago bideratzen dute alokairu ordaintzera. Hala ere, Sánchezen gobernuak, Alderdi Popularraren laguntzarekin eta pertsonen trafiko-mafien lankidetzarekin, hiru milioi etorkin inportatu ditu zazpi urte eskasean. Emaiza: prekaritate handiagoa jende gehiagorentzat.

Nafarroan ere gauza bera gertatzen da. Hainbat txostenek egiaztatzen dutenez, alokairuko etxebizitzaren eskaintza okerrera egiten jarraitzen du, eta Nafarroako Gobernuak politika ez-eraginkorrak egiten jarraitzen du, krisia larriagotzen eta milaka herritar merkatutik kanpo uzten dituztenak.

Eskaintzarik ezak, lehia gero eta handiagoarekin batera, prezioak gorantz bultzatzen ditu, eta familia gehiago kondentatzen ditu etxebizitza bat eskuratzeko ezintasunera.

Nafarroan, fenomeno argi eta garbi ikusten da: libre dauden etxebizitzak ordu gutxi batzuetan agortzen dira, eta maizterrak prezioagatik ez ezik, jabeek ezartzen dituzten kaudimen-baldintza zorrotzak bete ahal izateagatik ere lehiatzen dira.

Iruña dago arazoaren buruan, Espainiako merkatu saturatuen artean, iragarki bakoitzeko 72 kontakturekin, eskariaren presioa nabarmenagoa den hiriburuen mailan.

Zifra horrek erakusten du oso lehia handia dagoela, biderkatu egiten dituen alokairu lortzeko zailtasunak, batez ere gazteentzat, guraso bakoitzeko familientzat edo aldi baterako langileentzat.

Arazoa egiturazkoa da Nafarroan, etxebizitza-eskaintza (bai etxebizitza berriena, bai erabiliarena) oso txikia da, eta etxebizitza-parkearen zati handi bat ez da alokairu tradizionalera bideratzen. Horrek botila-lepo bat sortzen du, erlaxatu beharrean gogortzen ari dena hilero.

Gainera, Madrilgo Higiezinaren Sustatzaileen Elkartearen (ASPRIMA) azterlan baten arabera, etxebizitzaren prezioaren % 22tik 32ra bitarte zergak dira. Hau da, espainiarrek etxebizitza-bazterkeria pairatzen duten bitartean, bi alderdien gobernu nazionalak, autonomikoak eta udal-gobernuek negozioa egitea erabaki dute haien miseriarekin, eta higiezin baten zenbateko osoaren ia heren bat zuzenean zerga edo tasei egotz dakieke. Lotsagabekeria da administrazio publikoek diru-bilketan errekorra hausten jarraitzea, espainiarrek infraetxeetan errekorra hausten duten bitartean.

Ekimen hau ez da proposamen isolatu bat, Diputatuen Kongresuan legegintzaldi osoan garatzen ari garen eta, ondorioz, eskualde eta udalerrietan garatzen ari garen asmo handiko etxebizitza-programa baten katebegi bat baino gehiago da.

VOXen argi daukagu espainiarrek etxebizitza alokairuan edo jabetzan eskuratzeko aukera izan dezaten zerga-merkealdiak masiboki egin ahal izateko, premiaz ekin behar zaiola gure mugak zorrotz kontrolatzeari, eta, aldi berean, etxebizitza publikoa masiboki eraiki beharra dagoela, bai eta etxebizitza libre masiboki eraikitzea administratiboki arindu eta fiskalki sustatu ere, etxebizitza eskuratzeko lehentasun nazionala bermatuta. Bestela, zerga-onurak errentatzailearen/saltzailearen aldeko errenta-transferentzia bihurtuko lirateke.

Etxebizitza-larrialdi larriko testuinguru horretan, eta azaldutako guztiagatik, etxebizitzaren arloko zerga-beherapeneko honako plan hau proposatzen da:

Erabaki-proposamena:

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du egin beharreko aldaketak egin ditzan Balio erantsiaren gaineko zergari (BEZ) buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean, espainiarren ohiko etxebizitza BEZaren tasa supermurriztuarekin kargatutako produktu eta zerbitzuen barruan sartzeko.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Europako Batzordea presiona dezan, Balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzeko, Europar Batasuneko estatu kideei aukera eman ahal izateko ohiko etxebizitzaren erosketari % 5etik beherako tasa murriztua edo BEZaren salbuespena aplikatzeko.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen Testu Bategina onesten duen irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretua alda dezan,

espainiar batek ohiko etxebizitza erosteko zergakotaren % 100eko hobaria ezartzeko, eta, ordura arte, behar diren arau-aldaketak egin ditzan, ordainketa gehienez ere 15 urtez eta interesik gabe gerorata egin ahal izateko.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du araubide erkideko oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ken dezan, bereziki premiazkoa baita eskualdatzeen xedea ohiko etxebizitza eskuratzea denean, lurralde nazional osoan.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Ondarearen gaineko Zergaren ekainaren 6ko 19/1991 Legea eta lege hori garatzeko araudi guztia lurralde nazional osoan indargabetuz ondarearen gaineko zerga ken dezan, zerga horrek espainiarren ondarean konfiskazio bidegabeak, bikoiztuak eta neurrigabeak baitakartza.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du berriro ezar dezan ohiko etxebizitzan eginiko inbertsiogatik kenkaria PFEZean, ohiko etxebizitzarako hipoteka-mailegu indarduna duten espainiarrek ordaintzen dituzten interesak kendu ahal izan ditzaten, eta interes-tasen igoera euren poltsikoetan zuzenean konpentsatu, jabetzan erostea erraztuz.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du nazio osora heda dezan PFEZeko alokairu-gastuen kenkaria, alokairu-kontratuak dauzkaten espainiar guztiek kendu ahal izan dezaten horren kostuaren parte bat, eta KPlaren igoera euren poltsikoetan zuzenean konpentsatu.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu alda dezaten Toki Ogasunak arautzen dituen Legea, ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) hobarikasuak gehitzeko, hala nola ezkontideetako batek seme-alabak zaintzea erabakitzen duten familien kasuan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren tasa orokorra legeak baimendutako gutxienekora murriztu dezan, ondasun higiezinaren eskualdaketa sustatzeko eta, horrela, higiezinaren jardura bultzatzeko, horrek etxebizitzaren erosketaren azken prezioak murrizten lagunduko bailuke. Era berean, ohiko etxebizitza erosteko ondare eskualdaketen gaineko zergaren % 100eko hobaria ezar dezan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kenkariak ezar ditzan ohiko etxebizitza erosteagatik, alokatzeagatik edo zaharberritzeagatik PFEZaren tarte autonomikoan, betekizunak sinplifikatuz, errenta-mugak espainiarren errealitate sozioekonomikora egokituz eta lehentasuna emanez gazteek, familia ugariak eta desgaitasuna duten pertsonak jabetza eskuratzeari.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga estatu-mailan indargabetzen ez den bitartean oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga alda dezan eta gradu guztiei % 99ko hobaria aplikatu diezaion. Era berean, ondarearen gaineko zerga indargabetzen ez den bitartean, % 100eko hobaria ezar dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/MOC-00151. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berma dezan ez dela arreta-ordutegia murriztuko arreta jarraituko eta larrialdiko arretako gune (AJG) bakar batean ere, egun dauden gune guztien funtzionamenduari eutsiko zaiola eta Erriberriko gunearen ordutegia berreskuratuko dela

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan ez dela arreta-ordutegia murriztuko arreta jarraituko eta larrialdiko arretako gune (AJG) bakar batean ere, egun dauden gune guztien funtzionamenduari eutsiko zaiola eta Erriberriko gunearen ordutegia berreskuratuko dela.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioak

Arreta jarraituko eta larrialdiko arretako guneen bidezko osasun-arreta jarraitua eta urgentea Nafa-

roako herritarren oinarrizko eskubidea da, batez ere landa-eremuetan, non distantzien, biztanleria-aren sakabanaketaren eta zahartzearen ondorioz are beharrezkoagoa baita zerbitzu hori osasunera-ko sarbidean berdintasuna bermatzeko.

2024an, Nafarroako Gobernuak arratsaldeko larrialdiak kentzea erabaki zuen Erriberriko osasun-zentroan dagoen Arreta Jarraituko eta Larrialdiko Arretako Gunean. Neurri hori aurrez hartutakoari gehitzen zitzaion; hots, gaueko arreta kentzeari. Erabaki horrek zuzeneko murrizketa ekarri zuen inguruko milaka bizilagunen arretan, eta herritarren mobilizazioa eragin zuen, baita hainbat erakunde eta alderdi politikoren gaitzespena ere.

Itxi zenetik urtebete igaro ondoren, erabaki hura zuzendu beharrean edo landa-eremuko larrialdiko arreta indartu beharrean, kezka, ziurgabetasuna eta ezinegona sortzen ari dira Nafarroako beste landa-eremu batzuetan, beldur baitira ez ote dieten kenduko haien segurtasunerako eta ongizaterako funtsezko baliabide bat: arreta jarraituko eta larrialdiko arretako guneak.

Hori dela eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan ez dela ordutegia murriztuko arreta jarraituko eta larrialdiko arretako gune bakar batean ere, egun dauden guztien funtzionamendua mantenduko dela eta Erriberriko gunearen ordutegia berreskuratuko dela.

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/MOC-00152. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua argi eta garbi azaltzen baita emakumeen eskubideen eta askatasunen alde

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua argi eta garbi azaltzen baita emakumeen eskubideen eta askatasunen alde.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Lehendakaritza Batzordeak eginen du horren jarraipena.

Zioen azalpena

Espanian, Europan eta mundu osoan olatu inboluzionista kezkarri bat ari gara ikusten eskubideen arloan: azken mendean lortutako eskubideak, gaur egun mehatxatuta daude. Atzerakada horrek eskubide kolektibo zein indibidualei, gutxiengoaren eskubideei eta, bereziki, emakumeen eskubideei eragiten die. Atzera-egite horrek gure ustez finkatuta zeuden oinarrizko eskubideak ere zalantzan jartzen ditu.

Nondik dator emakumeen eskubideen aurkako olatu inboluzionista hori? Gure erakundeetan eskuin muturreko alderdien presentzia gero eta handiagoatik, eta eskuin tradizionaletatik haien politika askori eskaintzen zaien laguntza inplizitu edo esplizitutik.

Eskuin-muturraren esperientziak eta historiak berak ohartarazten zuen, eta Oxfam Intermon-en «Europa feminista?» txostenak berretsi zuen. Txosten horrek argi uzten zuen Europar Batasunak (EB) berriki hartutako genero-berdintasunerako politiken egoera prekarioa. Aipatu txostenean ohartarazten zen politika horiek mehatxupean daudela eskuin muturraren igoeragatik, eta alderdi horiek sistematikoki bozkatzen dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko neurrien aurka.

Alerta hori Europa osoan agertzen da, baina baita Espainian ere, non argi baitago emakumeok ere ezin ditugula borroka feministako hamarkadei esker lortu ditugun eskubideak bermatutzat jo. Gaur egun, zalantzan jartzen ari dira eskubide horiek, eta, eskuin muturrak gobernatzen duen edo eragin-posizioak dituen lekuetan, eskubide horiek murrizten dituzten neurriak hartzen ari dira, askotan desinformazioarekin eta manosfera deritzonetik sustatutako diskurtso misoginoekin batera.

Eskuin muturra, beraz, benetako mehatxua da emakumeen eskubide eta askatasunetarako. Beren politikak sexu- eta ugalketa-eskubideen aurka egiten dute —hala nola abortu segururako eta legale-rako eskubidea, kontrazepzioarako edo sexu-hezkuntza integralerako sarbidea—, indarkeria matxisten existentzia ukatzen dute, eta zalantzan jartzen edo erasotzen dituzte emakumeen defentsan eta bizitza duina, librea eta gizonen baldintza berberetan bizitzeko eskubidearen defentsan lan egiten duten baliabide publiko eta pribatuak.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentua argi eta garbi azaltzen da emakumeen eskubide eta askatasunen alde.

2. Eskubide horiek defendatzen dituzten Nafarroako instituzio, entitate feminista eta gizarte-erakunde guztien lanarekiko konpromisoa erakusten du.

3. Berariaz baztertzen du emakumeen eskubideak mugatu, murriztu edo zalantzan jarri nahi dituen ekintza edo ekimen politiko oro.

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

11-25/MOC-00153. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita foru-komunitateko langile autonomoen balioa eta ekarpen ekonomiko eta soziala aintzatets ditzan

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita foru-komunitateko langile autonomoen balioa eta ekarpen ekonomiko eta soziala aintzatets ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, heldu den urriaren 30eko Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin eta Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordean egin dakion jarraipena:

Zioen azalpena

Autonomoak dira gure ekonomiaren motor isila eta komunitateko bizitzaren funtsezko zutabea. Eguneroko ahaleginarekin enplegua sortzen dute, tokiko merkataritza dinamizatzen dute eta berrikuntza eta hurbiltasuna ekartzen dute guztiok erabiltzen ditugun zerbitzuetan. Ekiteko, arriskuak hartzeko eta aldaketetara egokitzeko adoreak gizarte-sarea ere indartzen du, eta aukerak sortu eta gure hiri eta herriak bizirik mantentzen ditu.

Balioan jarri behar da 46.347 langile autonomoek beren negozioak abiatzean egunero egiten duten ahalegina eta daukaten ausardia. Nafarroako Langile Autonomoen Elkarteak (ATA) txosten kezkarri bat aurkeztu du; bertan foru-komunitateko lan autonomoaren "atzerakada kezkarriaz" ohartarazten du. 2021az geroztik, Nafarroak

1.043 autonomo galdu ditu, eta Espainia osoan, aldiz, 95.000 baino gehiago gehitu dira azken aldian.

Sektore tradizionalak (nekazaritza, industria, garraioa) atzera egin dute, eta merkataritza izan da kaltetuena (1.012 kotizatzaile gutxiago LAABen lau urtean).

Autonomoek diote autonomoen galerak egiturazko arrazoiak dituela. Eta egungo laguntzak, erabilgarriak izan arren, mugatuak direla. Hamai-ka autonomia-erkidegok egin badute ere, Nafarroak oraindik ez ditu ezarri zenbait neurri, zero kuota kasu.

Beste autonomia-erkidego batzuek aurrera egin duten bitartean, Nafarroak atzera egin du. Joera hori leheneratzea gizarte- eta lurralde-lehentasuna da.

Bestalde, gobernu zentralak proposatutako Estatuko kotizazio-sistema berriak, zeina diru-sarrerara errealean bidez kotizatzean oinarritzen baita, Nafarroako autonomoen % 40 baino gehiagori kuota benetan igotzea ekar lezake, eta, bereziki, hilean 1.300 eurotik beherako etekin garbiak dituztenentzat.

Egia da kotizazio-proposamena gelditu egin dela kolektibo eta elkartearen protesta ugarien aurrean, ATA tartean, baina egoera horrek kezka eta ziurgabetasuna sortu ditu Nafarroako autonomoen artean.

Premiazkoa da Legebiltzar honetatik autonomoen kolektiboa indartuko duten neurri zehatzak, kuantifikagarriak eta iraunkorrak bultzatzea, autonomoek enpleguaren, berrikuntzaren eta gizarte-kohesioaren eragile gisa duten zeregina aitortuz.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu foru-komunitateko 46.554 langile autonomoen balioa eta ekarpen ekonomiko eta soziala aintzatets ditzan, eta Nafarroako Gobernuak haien babesa lehentasun estrategikotzat har dezan.

2. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu autoenplegua sustatu dezan, horretarako autonomo berrientzako zero kuota ezarri.

3. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu Nafarroako Autonomoaren Bulego Digitala sor

dezan, izapide burokratikoak sinplifikatzeko leihtila bakar gisa.

4. Nafarroako Gobernu premiatzen dugu langileak kontratatzeke dauden laguntzak indartu ditzan.

5. Nafarroako Gobernu premiatzen dugu kontziliaziorako eta oztopoak ezabatzeko neurriak dituzten laguntza-planak gara ditzan emakume autonomoentzako eta desgaitasuna duten autonomoentzako.

6. Espainiako Gobernu premiatzen dugu autonomoen BEZaren kuoten % 50erainoko hobaria eman dezan jardueraren lehen bi urteetan.

7. Espainiako Gobernu premiatzen dugu benetako diru-sarrerengatiko kotizazio-sistema berrikus dezan eta lanbide arteko gutxieneke soldata baino diru-sarrera txikiagoak dituzten autonomoen kuota murrizteko aukera azter dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-25/MOC-00108. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita muturreko bero-garaietan Nafarroako osasun-zentro guztietako klimatizatu gabeko guneetan jarduteko protokolo bat taxutu eta onets dezan

OSASUN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2025eko urriaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita muturreko bero-garaietan Nafarroako osasun-zentro guztietako klimatizatu gabeko guneetan jarduteko protokolo bat taxutu eta onets dezan. Erabakia eragin zuen mozioa Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu zuen, eta 2025eko irailaren 12ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“1.- Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatu du paziente, senitarteko eta profesional sanitarioek bizitako egoera, muturreko tenperaturak jasan behar izan baitituzte uda honetan gure foru-komunitateko sare publikoko osasun-zentro eta ospitaleetan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du muturreko bero-garaietan Nafarroako osasun-zentro guztietako klimatizatu gabeko guneetan jarduteko protokolo bat taxutu eta onets dezan, gutxieneke betekizun hauek jasoko dituen gutxienez ere:

a) Gela bakoitzeko paziente kopurua mugatzea, azaleraren eta aireztapen-baldintzen arabera.

b) Klimatizazio- eta aireztapen-sistema eramangarri egokiak edukitzeko betebeharra ezartzea, oinarrizko konfort termikoa bermatze aldera.

c) Adineko, patologia anitzeko edo bereziki kalteberak diren pazienteentzako neurri espezifikoak, klimatizatutako eremuetan kokatzeari lehen-tasuna ematea barne.

d) Zentroko zuzendaritzek aldizkako gainbegiratzak egitea”.

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 110/2025 Ebazpena, 2025eko urriaren 23koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00298 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen hurrengo bilkuran sartzan baita, ahoz erantzuteko

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak eskatu du galdera idatzia Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sar dadin, ahoz erantzuteko, zeren erantzuteko epea iragan baita, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori guztia dela-eta,

EBATZI DUT:

1. 11-25/PES-00298 espediente-zenbakia duen galdera heldu den urriaren 31ko 09:30ean Kultura,

Kirol eta Turismo Batzordeak eginen duen bilkurako gai-zerrendan sar dadin agintzea, eskumena duen kontseilariak ahoz erantzun dezan.

2. Ebazpen hau Nafarroako Gobernuari eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Mikel Zabaleta Aramendia jaunari jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias